

**I. ERANSKINA**  
**ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA**  
**EGITEKO TXANTILOIA**  
**ANEXO I**  
**PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA**  
**ANUAL DE ÁREA O MATERIA**

**2016-17 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa**  
**Programación didáctica anual/de curso 2016-17**

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	IES URIBE KOSTA BHI	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015143
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	DBH	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	3. maila
<b>arloa/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	EUSKARA ETA LITERATURA		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>materias integradas/ áreas</i>	Hizkuntzak eta IKT		
<b>diziplina barruko oinarriko</b> <b>konpetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares</i> <i>básicas asociadas</i>	-Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia -Teknologiarako konpetentzia		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	Nerea Mallona/ Eloie Basañez (Amaia Zabala)	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2016/2017

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
5. Izaten ikasteko konpetentzia

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
1. Ahozko zein idatzizko testuak (elkarrizketak, ipuinak, laburpenak, iritzi testuak eta deskribapenak) informazioa interpretatuz ulertzea, beste ikaskuntza-egoera batzuetan aplikatzeko.	1. Aplikazioa zein neurritan gauzatzen den, aurrerapenik ematen den eta bietan zelakoa den neurtzeko etengabeko jarraipenaz baliatuko da.
2. Ahozko zein idatzizko testuak (elkarrizketak, ipuinak, laburpenak, iritzi testuak eta deskribapenak) sortzea, beste egoera batzuetan erabili ahal izateko.	2. Sormena zein neurritan gauzatzen den, aurrerapenik ematen den eta bietan zelakoa den neurtzeko etengabeko behaketa egingo da.

<p>3. Ikaslearen errealitateak gertu dauden testu idatzi eta ahozko testu errazak ulertu eta sortzeko gai izatea; horretarako, estilo-elementuak eta lexiko zehatza eta aberatsaren erabilera landu eta bultzatuko da errepikapenak saihestuz, ikaslearen diskurtso idatzia zein ahozkoa aberastuz komunikazio egoera hurbilen aurrean ikasleak baliabide diskurtsibo egokien jabe izateko.</p> <p>4. Zenbait gramatika kontzeptu (aditzak indikatiboa, deklinabidea) hizkuntzari buruzko hausnarketa jardueretan erabiliz jorratzea, esan idatziak egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta ulertzeko gai izateko.</p> <p>5. Literatura obrez gozatzea irakasleak zein ikasleak hautatutako irakurketa liburuak irakurriz.</p> <p>6. Kurtsoan zehar zenbait lan taldeka egitea, taldeka lan eginez edota norberaren produkzioak taldeari aurkeztuz elkarbitza eta besteekiko errespetuzko jarrerak bultzatzeko</p>	<p>3. Ikasleak baliabide diskurtsibo egokien jabe izatea lortu duen, zein neurritan gauzatu den eta zelakoa den bere ahozko zein idatzizko produkzioaren behaketan ziurtatuko da.</p> <p>4. Gaitasun horren aurrerapena eta beronen kalitatea ikaslearen idatzizko produkzioan nabaria den behatuko da.</p> <p>5. Irakurzaletasuna gehitu den eta zein neurritan erakusten duten egiaztatuko da.</p> <p>6. Talde jardunean erakutsi dutena gizalegezkoa den behatuko da.</p>
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuak, ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

### 1.- GEZURRAK IDAZTEKO ARTEA

Diskurtso-sekuentziak: Narrazio-sekuentzia; Narrazioaren egiturako elementuak: Agertokia eta garaia, Pertsonaiak, Gatazka eta ekintzak, Narratzailea

Hizkuntza-baliabideak: Testuaren eremuan: Narrazioaren egiturako elementuen arteko koherentzia, Denborazko testu-antolatzaileak; Perpausaren eta hitzaren eremuan: Perpausak, Aditzaren komunztadura, Leku-denborazko deklinabide-kasuak, Hitza, Hitz homofonoen ortografia

### 2.- EUSKARAREN LEKUKOAK

Diskurtso-sekuentziak: Esplikazio-sekuentzia, Deskribapen-sekuentzia; Hizkuntza-baliabideak: Testuaren eremuan: Komunikazio-asmoaren arabera informazioa, Perpausaren eta hitzaren eremuan: Perpausak Kalko okerrak, Hitza: Soziolinguistika-terminoak: hizkuntza-transmisioa, hiztun-komunitate, erabilera-eremu, hizkuntza-normalizazio, diglosia, hizkuntza-ukipena, eta abar.

### 3.- IKA-MIKA

Diskurtso-sekuentziak: Argudio-sekuentzia (Tesia, Argudio motak, Falaziak); Testu-generoak: Eztabaida;

Hizkuntza-baliabideak: Testuinguruaren eremuan (Baliabide paralinguistikoak: Gorputzaren jirakoak, Kokapena, Keinuak, Begiradak, Ahotsaren alderdi erretorikoa, Ahotsaren tinbrea eta intentsitatea, Soinu edo hotsak, intonazioa, erritmoa, Ahoskatzeko modua) Hizkuntza-funtzioak: gonbidatzea, eskertzea, eskatzea, zorientzea...; Igorle eta hartzailearen rolak eta testuinguru soziala: Erregistroa (Formala, Lagunartekoa edo informala; Modalizazioa: esandakoarekiko igorlearen jarrera islatzeko hizkuntza-baliabideak (Ziurtasuna adieraztekoak, Derrigortasuna adieraztekoak, Balorazioa adieraztekoak; Igorle eta hartzailearen presentzia diskurtsoan: Pertsona-deixia: pertsona bakarrari edo bat baino gehiagori erreferentzia egitekoak, Izenordainak Jokaturako aditzak, Deikiak, Toki/leku-deixia eta denbora-deixia;

Testuaren eremuan: Jarraipen tematikoa: Hizkuntza-baliabideak (sinonimoak, hiperonimoak, erakusleak, sinonimoa + erakuslea, hiperonimoa + erakuslea), Estrategiak (hitzen bat errepikatzea, aurrez aipaturako zerbaitei deskribatzea, solaskidearen nahi edo desio bati kortesia positiboa erabiliz erantzutea); Perpausaren eta hitzaren eremuan: Aditzak (Nor-nork sailekoak: "egin" daramaten aditz-lokuzioak, Nor-nori-nork sailekoak), Katategoria gramatikalak: izena, adjektiboa, pertsona-izenordainak

Normalizazio Batzordeak antolatuko dituen proiektu guztietan hartuko dugu parte : Euskararen Egunaren garaian Zergatik ez dugun euskaraz egiten izenburua duen proiektua garatuko dugu, besteak beste.

HTB Batzordeak proposatuko dituen zereginetan ere murgilduko gara.

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Ahozko eta idatzizko testuen bitartez, metodologia eraginkorra erabiliko dugu. Eguneroko lana asko baloratuko dugu, baita banakako zein taldeko lana ere. Ikasleen motibazioa bultzatuko dugu, helburuak jakinaraziz baita negoziazio jarduerak proposatuz, besteak beste.

Ikaskuntza autonomia izaten ahaleginduko gara, eta ikasitakoaren funtzionaltasuna eskola esparrutik kanpo bultzatuko dugu.

IKTak gure metodologian garrantzi handikoak dira, beraz, blogak, web orriak...ea erabiliko ditugu. Honetaz gain, zenbait proiektu, Normalkuntza, Agenda 21, Genero berdintasuna...gure egunerokoan integratuko ditugu.

Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena eta entzumena lantzeko beren-beregiko atazak landuko ditugu. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan-saio batzuk antolatuko ditugu, eta bertan landutakoa 3. ebaluazioan zehar ikasgeletan gauzatuko dugu.

**EBALUAZIO-TRESNAK** [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak,

**KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK** [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

<p>ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoak...]</p> <p><b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p><b>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN</b> [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Hurrengoak hartuko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- ikasgelan egindako lanak.</li> <li>- etxerako lanak.</li> <li>- azterketak.</li> <li>- proiektuak.</li> <li>- idazlanak.</li> <li>- koadernoaren erabilera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Azterketa %60 (hiruhilabeteko proiektua %20)</li> <li>-Etxerako lana %10</li> <li>-Gelako lana, jarrera, euskararen erabilera %10</li> </ul> <p>Erdaraz sarritan eta taldearen kaltean jarduteak nota jaistea dakar; beti ere, euskaraz hitz egitea ezinbestekoa delarik.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Irakurketa liburua %10</li> <li>-Proiektua %10</li> </ul> <p>Materiala ez ekartzeak, azken notan eragina izango du.</p>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errehabilitazio-sistema...].</p> <p><b>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN</b> [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Etengabeko ebaluazio sistema erabiltzen dugunez, ikasleek ebaluazio bat gainditzen dutenean, aurreko guztia gainditzat emango da.</p> <p>Ikasleren batek aurreko ikasturteetako ikasgaia gainditu gabe edukiko balu, ikasturtean zehar ebaluazio bat gaindituz, ikasgaia gaindituko luke. Bestela, urtarrilean aparteko azterketa egiteko aukera izango du, pendiente duen ikasgai hau gainditzeko. Horretarako, agindutako errefortzurako ariketak egin beharko ditu. Aurreko ikasturtekoa gainditzeko % 40ko balioa izango du lanak.</p>	

**OHARRAK / OBSERVACIONES**

Plentzian, 2016ko azaroaren 25ean

Departamendu burua: Marilu Arranz Uribarrena